

DUELA HAMAR URTE EZARRITAKO HELBURUAK BERRIZ AZTERTU ETA HAMABOST URTEKO PLANGINTZA ONARTU NAHI DA

Haur guztien eskolatzea bultzatzeko planaz eztabaidatzen hasi dira Dakarren

■ Eskolatu gabeko haurren bi herenak neskak direla ohartarazi zuen Kofi Annanek sarrera hitzaldian

■ 880 milioi lagun inguru alfabetatu gabe daude gaur egun mundu osoan, eta 113 milioi haur eskolatu gabe

■ Hezkuntza arloan baino hiru aldiz gehiago gastatzen dute Afrikako zenbait herrialdek kanpo zorra ordaintzen

Agentziak / Dakar


HEZKUNTZA haur guztiengana hedatzeko eta, bereziki, nesken eskolatzea bultzatzeko deia egin zuen Kofi Annan Nazio Batuetako Erakundeko (NBE) idazkari nagusiak atzo Dakarren (Senegal), Hezkuntzari Buruzko Mundu Foroaren irekiera ekitaldian.

180 estatutako ordezkari eta ehun inguru Gobernu Kanpoko Erakundetako (GKE) kideak batzartu dira Senegalgo hiriburuan, hezkuntzaren egoera aztertu eta mundu osoko haurrak eskolatzeko helburua lortzeko zer urrats egin erabakitzearen. Duela hamar urte gai berarekin Thailandian egindako konferentzian ezarritako helburuak zein neurritan bete diren aztertuko dute Dakarren hiru egunez, eta agiri bateratu bat hitzartzen ahalginduko dira 180 estatutako ordezkariak. Hamabost urteko epean hezkuntza haur guztiengana hedatzeko eta analfabetismoa ezabatzeko plangintza osatzea da helburu nagusia.

Haurren artean askoz neska gehiago daude munduan eskolatu gabe, Kofi Annanek atzo nabarmendu zuenez: guztira 113 milioi haur daude eskolatu gabe, eta horietatik bi heren neskak dira. «Epe luzera fruitu handiak eman go dituen inbertsioa da neskentzako hezkuntza», esan zuen Annanek.

Hezkuntza plangintzak nola ordaindu

Familia askotan mutilaren eta neskaren artean eskolara nor bidali aukeratu behar dutenean, mutilaren aldeko aukera egin ohi dela ohartarazi zuen Nazio Batuetako ordezkari nagusiak: «Norbaitek etxean lagundu behar badu, normalean neska gelditzen ohi da, eta etxetik kan-



SEYLOU / EPA

Kofi Annan NBEko idazkari nagusia, Abdoulaye Wade Senegalgo presidentea eta Koichiro Matsuura Unescoko zuzendari nagusia, Dakarko Foroaren sarrera ekitaldian.

po diru truke lan egiteko norbait behar bada ere, gehiagotan bidali ohi da neska».

Hezkuntzan egin beharreko inbertsioak nork ordaindu

izango da Dakarko Foroko eztabaidagai nagusia. Izan ere, gai honen inguruan Gobernu Kanpoko Erakundetako ordezkariak eta

munduko finantza erakundeak aurrez aurre izango direla aurreikusten da. Duela hamar urteko helburuak bete ez zirela ikusiz eta hainbat

oztopoak

Kanpo zorra, finantzak eta gatazkak

■ Orain hamar urteko Konferentziatik gaur egun arte hainbat aurrerakuntza egin diren arren, zenbait arlotan atzera ere egin da. Hona atzerapausoak eragin dituzten zenbait faktore.

Kanpo zorraren zama • Saharatik hegoalderako lurraldeek hiru aldiz gehiago gastatu dute kanpo zorra ordaintzen, hezkuntzan baino.

Komunismoaren gainbehera • Europako ekialdean eta Asiako erdialdean hainbat estatutan sistema sozialista desegin denez, hezkuntza sistema publikoaren bermerik gabe geratu dira asko.

Gatazka armatuen piztea • Hamar urteotan hainbat herrialdetan -Mendebaldeko Afrikan, esaterako— piztutako gerra zibi-

lak oztopo handia izan dira irakaskuntza zabaltzeko helburuetarako.

Asiako finantza krisiaren eragina • Finantzen krisiak eragin kaltegarria izan du Asiako herrialdeetan haur guztiak eskolatzeko ahaleginean.

Hiesaren hedatzea • Afrikan hiesaren hedatzeak oztopatu egin du alfabetatze lana. Zambian, esaterako, hiesak jota hildako irakasleen kopurua irakasle berriena baino handiagoa da.

Elitearen hezkuntza bultzatzea • Helburua denontzako hezkuntza izanik ere, Afrikako zenbait estatu elitea prestatzeko goi mailako hezkuntza ari da bultzatzen gehiago; haur askok, berriz, alfabetatu gabe segitzen dute.

kasutan egoerak okerrera egin duela oharturik. Dakarko Foroan konpromiso zehatzagoak eskatzeko asmoa dute Gobernu Kanpoko Erakundeek. Helburua 2015. urtean haur guztiak eskolatzeko baldin bada, horretarako bitarteko ekonomikoak jarri behar direla-eta, finantza erakundeek eta herrialde garatuen politika ekonomikoaren aldaketa eskatuko dute. Izan ere, hezkuntzaren alorrean egoerarik okerrera pairatzen duten herrialde askok diru gehiago gastatzen dute kanpo zorreko interesak ordaintzen irakaskuntza bultzatzen baino.

Hezkuntzak doakoa izan behar duen izango da Dakarko beste eztabaidetako bat. Haur asko gurasoek ordaintzeko duten ezintasunagatik geratzen direla eskolara joan gabe argudiatuko dute Dakarko azken agirian doako hezkuntzaren aldeko aldarria agertzea nahi dutenak.

Hamar urteko balantzea

2015. urteari begira hitzartu beharreko plangintza landu aurretik, duela hamar urteko konferentziatik hona egindako lana aztertuko dute Dakarko Foroan. Hezkuntza jende guztiarengana hedatzea izan zen Thailandiako Foroko helburu nagusia ere. Helburua ez da lortu, inondik ere.

Duela hamar urte mundu osoan mila milioi analfabeto zeuden, eta gaur egun 880 milioi direla uste da. Mendebaldeko Asian eta Latinoamerikan, oro har, aurrerapauso handiak eman dira analfabetismoaren aurkako borrokan, eta duela hamar urte baino haur gehiagok du hezkuntzarako aukera. Egoerarik larriena, bestalde, Saharatik hegoaldeko Afrikako herrialdeek pairatzen dute.